

Agindua, Hezkuntzako sailburuarena, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren osaera eta eginkizunak zehazten dituen dekretu-proiektua aldeztu aurretik onartzekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen duenez (Lehendakariaren uztailaren 30eko 36/2024 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori), sailburuek Lehendakariari aurkeztuko dizkiote, 2024ko urriaren 31 baino lehen, beren sailen erregelamendu organikoaren proiektuak, hark onar ditzan.

Xedapen hori betetzeko, Hezkuntzako sailburuaren 2026ko martxoaren 18ko Aginduaren bidez, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren osaera eta eginkizunak zehazten dituen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasia agintzen da.

Agindu horretan, dekretu-proiektua izapidetzeko ardura Euskara eta Hizkuntzak Ikasteko eta Irakasteko Institutuaren Zuzendaritzari eman zaio. Zuzendaritza horrek bi hizkuntzetan idatzi du testua, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14. artikulua arabera. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, landutako dekretu-proiektuaren testua ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Aldeztu aurretik onartzea Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren osaera eta eginkizunak zehazten dituen dekretu-proiektuaren testu elebiduna.

Bigarrena. Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren osaera eta eginkizunak zehazten dituen dekretu-proiektua egiteko prozeduraren instrukzioarekin jarraitzeko agintzea, hasierako aginduan eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideen arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO



EUSKARAREN ETA HIZKUNTZEN IKASKUNTZARAKO INSTITUTUAREN OSAERA ETA EGITEKOAK ZEHAZTEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA

HITZAURREA

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legearen 90. artikulua bidez, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua sortu da, autonomia funtzionala duen organo gisa, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailari atxikita.

Dekretu honen helburua da Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren egitura eta funtzionamendua arautzea, legeak ezarritakoaren arabera.

AZALPEN-ZATIA

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak euskararen irakaskuntzarako eskubidea aitortu zuen, eta, haren garapenaren esparruan, hainbat neurri eta programa sustatu dira Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman.

Lege hori garatzeko onartu ziren, besteak beste, uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza ez-unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena, eta 1983ko abuztuaren 1eko Agindua. Arau horiek euskararen irakaskuntza eta erabilera sustatzeko beharrezko esparru juridikoa ezarri zuten, eta irakasleen hizkuntza-prestakuntza eta -trebakuntza garatzeko oinarriak finkatu zituzten.

Era berean, 1983ko abuztuaren 1eko Aginduak ezarri zuen Hezkuntza eta Kultura Sailak beharrezko neurriak hartuko zituela eskola-giroan euskararen erabilera bermatzeko eta hizkuntza hori komunikazio-hizkuntza arrunt bihurtzeko, bai eskola-jardueretan bai eskolaz kanpoko eremuetan.

Arau-esparru horren garapenaren ondorioz sortu ziren IRALE programa, irakasleen euskalduntzea eta hizkuntza-prestakuntza sustatzeko, eta ULIBARRI programa, ikastetxeetan euskararen erabileraren normalizazioa bultzatzeko. Programa horiek ekarpen garrantzitsua egin dute euskararen ezagutzan, erabileran eta hezkuntza-sistemako presentzian.

Aurrerapen horiek gorabehera, azken hamarkadetan gizartean, hezkuntzan eta hizkuntzen erabileran izandako aldaketek erronka berriak ekarri dituzte. Ikasleen eta irakasleen profilak gero eta anitzagoak dira, hizkuntza-errealitateak dibertsifikatu egin dira, eta hezkuntza-sistemak eleaniztasunari, kulturartekotasunari, hizkuntza-aniztasunaren kudeaketari eta hizkuntzen erabilera eraginkorraren sustapenari lotutako behar berriei erantzun behar die.

Euskal hezkuntza-sistema eleaniztuna eta kulturartekoa da, euskara eta euskal kultura ardatz dituenak. Testuinguru horretan, hezkuntzaren helburua da ikasle

guztiek euskararen eta gainerako hizkuntzetan komunikatzeko eta ikasteko behar dituzten gaitasunak garatzea, aldi berean euskal kulturaren ezagutza, transmisioa eta balorizazioa sustatuz.

Horretarako, beharrezkoa da hizkuntzen irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei lotutako ikuspegi pedagogikoak eguneratzea eta hezkuntza-komunitateari prestakuntza, baliabide eta tresna egokiak eskaintzea. Era berean, soziolinguistikaren ekarpenek errealitate linguistikoa hobeto ezagutzeko eta hizkuntza-gaitasunean, erabileran eta hizkuntza-jarreretan eragiteko tresna baliagarriak eskaintzen dituzte, hizkuntza-politika eta hezkuntza-estrategiak modu eraginkorrarekin garatzeko.

Bestalde, nazioarteko migrazio-fluxuek eta gizartearen aniztasun gero eta handiagoak erronka berriak planteatzen dizkiote hezkuntza-sistemari. Testuinguru horretan, euskarak, hizkuntza propioa eta gutxitua izanik, gizarte-kohesiorako, inklusiorako eta herritarren arteko berdintasunerako elementu integratzaile gisa jardun behar du.

Horrenbestez, beharrezkoa da euskal unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman hizkuntzen ikaskuntzari, euskararen normalizazioari, irakasleen hizkuntza-prestakuntzari eta hizkuntzen tratamendu integral eta integratuari lotutako egiturak, zerbitzuak eta jarduerak egokitu eta indartzea.

Helburu horri erantzuteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legearen 90. artikulua bidez Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua sortu da. Aipatutako artikulua arabera, Institutuaren egiteko nagusia da hizkuntza-metodologiak lantzea eta irakasleak prestatzea, haien hizkuntza-gaitasuna, inplikazioa eta garapen profesionala indartzeko, hezkuntza-sistemaren beharrei eta testuinguru soziolinguistikoei erantzunez. Era berean, Institutuak bere gain hartuko ditu hezkuntzaren arloko eskumena duen saileko Euskara Zerbitzuak orain arte garatu dituen eginkizunak.

Lege-agindu hori betez, Eusko Jaurlaritzari dagokio dekretu bidez zehaztea Institutuaren osaketa, eginkizunak, antolaketa eta funtzionamendua.

Horrenbestez, dekretu honek Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren antolaketa- eta funtzionamendu-esparrua ezartzen du, euskararen erabilera sustatzeko, hizkuntzen ikaskuntza indartzeko eta euskal hezkuntza-sistemaren hizkuntza-helburuei erantzuteko tresna estrategiko gisa.

Ondorioz, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, eta Gobernu Kontseiluak [data] egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA — XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua — -Xedea

Dekretu honen xedea da Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren egitura eta funtzionamendua arautzea.

Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua da euskal hezkuntza sisteman euskararen ardaztutako ingurune eleaniztun eta kulturartekoa sustatzeko helburuari erantzuneko dion erakundea. Ildo horretatik, euskal hezkuntza sisteman dauden sare publiko eta pribatu-itunpeko ikastetxeei lagunduko die haiek dituzten hizkuntza erronkei erantzuten.

Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren egiteko nagusia da hizkuntza-metodologiak lantzea eta irakasleak prestatzea, haien jarrera, aurrerapena eta hizkuntza-inplikazioa indartzeko asmoz, hezkuntza-sistemak testuinguru bakoitzean dituen eskakizunen arabera.

2. artikulua — Izaera juridikoa

Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua autonomia funtzionala duen organoa da, eta hezkuntzaren arloko eskumena duen sailari atxikita dago, Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legearen 90. artikuluan xedatutakoaren arabera.

II. KAPITULUA — HELBURUAK ETA FUNTZIOAK

3. artikulua — Helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legearen 90. artikulua zedarritutakoaren arabera, honako hauek dira Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren helburuak:

–Hizkuntza-metodologiak lantzea eta irakasleak prestatzea, haien jarrera, aurrerapena eta hizkuntza-inplikazioa indartzeko asmoz, hezkuntza-sistemak testuinguru bakoitzean dituen eskakizunen arabera.

– Hezkuntzaren arloko eskumena duen saileko Euskara Zerbitzuak sortu zenetik bete izan dituen eginkizunak bere gain hartzea, baita HEZILAB zentroaren euskara, eleaniztasuna eta kulturarteko atalari lotutakoak ere.

– Euskararen erabilera aktiboa sustatzea hezkuntza testuinguruan.

4. artikulua — Funtzioak

1.– Horretarako, Institutuak honako funtzio hauek beteko ditu:

a) Euskal irakaskuntza eleaniztunaren markoa ezarri eta garatzea.

b) **Ikerketa** egin eta sustatzea **hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza eleaniztunerako prozesu askotarikoei buruz, soziolinguistika eta kulturaren markoak** baliatuz.

c) **Sarean oinarritutako lankidetza-espazioak diseinatu eta sustatzea**, jarraipena egin eta ebaluatzea sektore ezberdinetako eragileekin lankidetzan, bereziki eremu hauetan: euskararen irakaskuntza, euskararen erabilera sustapena, euskal kultura eta haren sozializazioa, **gaitasun eleaniztuna**, adierazpena eta **kontzientzia kulturala** garatzea, eta abar.

d) Hezkuntza sailean parte hartzen duten gainerako erakunde edota zerbitzuekin lankidetzan aritzea.

e) **Berrikuntza-prozesuak bultzatzea**, irakasleen jardun pedagogikoak erronka hezitzaile berriei erantzun diezaien.

f) **Hizkuntza-proiektuak garatzea** Euskadiko Autonomia Erkidegoko beste hezkuntza-erakunde batzuekin lankidetzan, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen esparruan, betiere **Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren izaerari eta helburuei** erantzuten dietenean.

g) **Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea** (estatuko, europar eta nazioartekoekin) Institutuaren izaerari eta helburuei egoki erantzuten dieten proiektuetan, eta horien bidez **Euskadiko hezkuntza** munduko hezkuntza-sistema erreferenteetan kokatzen laguntzea, hizkuntzen irakaskuntzaren eta hezkuntza-arloko hizkuntza-kudeaketaren ikuspegitik.

5. artikulua — Ardatzak

1.— Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak honako lan-ardatz hauen bidez gauzatuko ditu bere proiektuak:

1. Hizkuntza prestakuntza eta aholkularitza ardatza: irakasle, hezitzaile eta langileentzako hizkuntza prestakuntza zein aholkularitza, eta oro har, euskarazko corpusgintzari lotutako lan jarduna.
2. Materialgintza eta dokumentazio ardatza: hizkuntzen irakaskuntzari, soziolinguistikari, eta euskal kultura zein kulturartekotasunari lotutako euskarazko materialgintzaren sustapena eta dokumentazio jarduna.
3. Euskara, eleaniztasuna eta kulturartekotasunaren garapen ardatza: normalizazioa eta euskal kulturaren transmisioa; hizkuntza proiektuen garapena eta jarraipena; hizkuntzak ikasteko metodologiak eta baliabideak; soziolinguistika gaitasun eta edukiak; euskal kulturaren eragiteko prozesu zein baliabideak; kulturarteko testuinguruak, eta abar.
4. Ikerketa ardatza: hezkuntza esparruak ezarrita duen hizkuntzen markoari atxikitako ikerketa-jarduna hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan, soziolinguistika eremuan, baita euskal kulturaren eta kulturartekotasunaren eremuan ere.

2.– Institutuak izango dituen lan-ardatzez gain, haien garapenerako beharrezko izango zaion administrazio unitate bat izango du: kudeaketa operatiboaren unitatea, hain zuzen. Unitate hau zeharkakoa izango da eta honako beharrei emango die, gutxienez, erantzuna: komunikazioa, teknologia berrien kudeaketa eta aholkularitza, eta arlo juridiko-administratiboa.

3.– Ardatz bakoitzeko eta administrazio unitateko barne antolamendua eta funtzionamendua Institutuko zuzendariak finkatuko ditu, baita kudeaketa operatiboarena ere.

III. KAPITULUA — ANTOLAKETA EGITURA

6. artikulua.- Organoak

1.– Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren egitura honako organoek osatzen dute:

- Kontseilu Errektorea
- Zuzendaria
- Zuzendariordea
- Zuzendaritza taldea
- Ardatz buruak
- Kudeaketa operatiboaren burua
- Aholku Batzordea

2.- Lan-ardatz bakoitzak ardatz buru bat eta arloka antolatutako aholkulari espezializatuak izango ditu. Baita kudeaketa operatiboaren unitateak ere.

3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bat egina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuak onartuta, organo artezkarietako osakide edo horietako partaide izango diren pertsonak modu orekatuan izendatu eta aukeratuko dira gizon eta emakumeen artean, betiere gaitasun, prestakuntza eta heziketa nahikoa badute.

IV. KAPITULUA —KONTSEILU-ERREKTOREA

7. artikulua.- Kontseilu Errektorea

1.– Kontseilu Errektorearen burua Hezkuntza sailburua izango da.

2.– Honako kide hauek osatuko dute:

- a) Institutuko zuzendaria.
 - b) Hezkuntza Politiketarako sailburuordea.
 - c) Lanbide Heziketako sailburuordea.
 - d) Hezkuntza Sailaren ikuskatzaile nagusia.
 - e) Institutuko zuzendariordea; azken horrek idazkari-eginkizunak beteko ditu.
- 3.– Gutxienez, urtean birritan batuko da Kontseilu Errektorea.

8. artikulua.- Kontseilu Errektorearen eginkizunak

Zuzendaritza- eta orientazio-organo nagusia da Kontseilu Errektorea. Hauek dira Kontseilu errektorearen eginkizunak:

- a) Institutuaren jarduera estrategikoaren orientazioa eta jarraipena egitea.
- b) Urteko planak eta jarduera-programak aztertzea eta onartzea.
- c) Helburu estrategikoak eta lehentasunak ezartzea.
- d) Aurrekontuaren eta baliabideen erabileraren gaineko irizpideak finkatzea.
- e) Jardueren eta emaitzen ebaluazioa egitea.
- f) Hezkuntza-administrazioaren eta gainerako eragileen arteko koordinazioa sustatzea.
- g) Zuzendariari orientazioa eta aholkuak ematea.
- h) Hezkuntza sailburuari beharrezkoak diren baliabide material eta pertsonalak proposatzea.
- i) Kanpo-erakundeekiko lankidetzak hitzarmenak proposatzea.

V. KAPITULUA.– ZUZENDARIA

9. artikulua.- Zuzendaria

Hezkuntzako sailburuaren proposamenez eta Gobernu Kontseiluaren onarpenarekin izendatuko da zuzendaria, izendapen askeko prozeduren bidez, lanpostuen berezko zuzendaritza-funtzioak, koordinazio estrategikoa eta erantzukizun berezia kontuan hartuta, eta, kasu guztietan, jardun-eremuaren eta ikuspegi estrategikoaren ibilbidea, esperientzia eta ezagutza espezifikoak balioetsiz.

10. artikulua.- Zuzendariaren eginkizunak

Institutuko zuzendariaren eginkizunak honako hauek izango dira:

- a) Erakundea zuzentzea, haren jardueraren berri ematea Hezkuntza sailburuari eta Kontseilu Errektoreari, eta dagozkion proposamenak eta txostenak aurkeztea.
- b) Hezkuntza Sailari gastuen urteko aurrekontu-proiektua proposatzea, gastuak baimentzea eta dagokien ordainketa-aginduak ematea.
- c) Kudeaketa-kontuak Hezkuntza Sailari igortzea, aurrekontu-ekitaldiaren itxiera eta likidazioa egiteko beharrezkoak diren kontabilitate-baldintzak modu bateratuan betetze aldera, ekonomia- eta ogasun-eskumenak dituen sailak urtero ezartzen dituen arauen arabera.
- d) Urteko Kudeaketa Planaren zirriborroa prestatzea, Institutuko ardatzetako arduradunekin lankidetzan eta Hezkuntza Sailean eskumena duen zuzendaritzak ezarritako irizpideei jarraikiz, honek onar dezan.
- e) Urteko Kudeaketa Plana ebaluatzea, Institutuko ardatzetako arduradunekin lankidetzan, eta dagokion ebaluazio-txostena aurkeztea Hezkuntza Sailean eskumena duen zuzendaritzari, onar dezan.
- f) Institutuari atxikitako langileen buru izatea eta indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzea.
- g) Institutuko ardatzen jardunak gainbegiratu eta koordinatzea.
- h) Institutuak gauzatutako jardueren inguruko txostenak Hezkuntza Sailari aurkeztea.
- i) Institutuaren ordezkari nagusi gisa jardutea izaera bereko beste erakundeekiko harreman eta trukeetan, Estatuko, Europar Batasuneko zein nazioarteko mailan, metodologiak, proiektuak, esperientziak eta jardun-sistematikak kontrastatu, partekatu eta hobetzeko.
- j) Hezkuntza Sailaren menpeko erakundeen arteko lankidetzak sustatu eta garatzea.

k) Zaintza teknologikoa egitea, kanpoko zein Institutu barruko informazioa bildu eta aztertzeko, berrikuntzaren, inklusioaren eta hezkuntza-teknologiaren alorreko aurrerapenei dagokienez.

l) Institutuaren zerbitzu- eta lan-hizkuntza euskara dela bermatzea, eta, aldi berean, herritar orok erakundearekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialen artean aukeratzeko duen eskubidea errespetatzen dela zaintzea.

m) Indarrean dagoen Hizkuntza Normalizatzeko Planaren helburuak zehaztea, eta helburu horiek lortzeko ekimenak garatu eta ebaluatzea, Institutua osatzen duten esparruetako arduradunekin lankidetzan.

n) Indarrean dagoen genero-berdintasun planaren helburuak definitzea, eta helburu horiek betetzeko neurriak garatu, aplikatu eta ebaluatzea, Institutuko arlo guztietan berdintasunaren ikuspegia integratuz eta dagokion arduradunekin lankidetzan.

ñ) Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak eta kudeaketa-planak onartu eta ebaluatzea.

o) Hezkuntza Sailak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzea.

VI. KAPITULUA. – ZUZENDARIOREA

11. artikulua.- Zuzendariorea

Institutuaren zuzendariaren proposamenez eta Hezkuntza sailburuaren onespenezkin izendatuko da zuzendariorea. Izendapen askeko prozeduren bidez, lanpostuen berezko zuzendaritza-funtzioak, koordinazioa eta erantzukizuna kontuan hartuta, eta, kasu guztietan, jardun-eremuaren eta ikuspegi estrategikoaren ibilbidea, esperientzia eta ezagutza espezifikoak balioetsiz.

Zuzendarioreak zuzendariaren menpe jarduten du eta erakundearen kudeaketan, koordinazioan eta zuzendaritzan laguntzen du. Era berean, behar denean zuzendaria ordeztzeko ardura izan dezake.

12. artikulua.- Zuzendarioareen eginkizunak

Zuzendarioareen eginkizunak honako hauek izango dira:

a) Zuzendariari laguntza ematea Institutuko zuzendaritza, plangintza eta kudeaketa orokorrean.

b) Zuzendaria ordezteko hura aldi baterako ez dagoenean edo kargua hutsik dagoenean, indarrean dagoen araudiaren arabera.

c) Institutuaren jardueren, programen eta proiektuen garapena koordinatzen laguntzea, haien jarraipena eta betetze-maila bermatuz.

d) Zuzendariak esleitzen dizkion lan jardun, arlo, plan edo proiektu espezifikoaren ardura hartzea, eta haien garapena eta ebaluazioa bultzatzea.

e) Urteko Kudeaketa Planaren prestaketan eta ebaluazioan parte hartzea, Institutuko ardatzetako arduradunekin lankidetzan, eta dagokion dokumentazioa lantzen laguntzea.

f) Institutuaren barne-antolaketa eta funtzionamendu egokia bermatzeko koordinazio-lanak egitea.

g) Institutuari atxikitako langileen jardueraren jarraipena egitea eta lanaren antolaketan laguntzea, zuzendariaren gidaritzapean.

- h) Institutuaren jardueren eta programen inguruko txostenak prestatzen eta izapidetzen laguntzea.
- i) Beste erakunde eta eragileekiko harremanetan zuzendariari laguntzea edo, hala badagokio, hura ordeztzea.
- j) Hizkuntza-politikarekin, berrikuntzarekin, inklusioarekin eta genero-berdintasunarekin lotutako plan eta ekimenen garapenean, aplikazioan eta jarraipenean parte hartzea.
- k) Zuzendariak edo Hezkuntza Sailak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzea.

VII. KAPITULUA. – ZUZENDARITZA TALDEA

13. artikulua.- Zuzendaritza taldea

1.– Zuzendaritza-taldea erakundearen jarduera planifikatu, koordinatu, gidatu eta ebaluatzeko arduradunek osatzen duten organoa da.

2.– Zuzendaritza-taldea honako hauek osatzen dute:

- a) Institutuko zuzendariak.
- b) Zuzendariordeak.
- c) Ardatz buruek.
- d) Kudeaketa operatiboaren unitate-buruak.

14. artikulua.- Zuzendaritza taldearen eginkizunak

- a) Zuzendariari laguntza ematea bere eginkizunak betetzean.
- b) Erabakiak hartzeko informazio- eta laguntza-sistemak diseinatu, mantendu eta garatzea, datu garrantzitsu, fidagarri eta eguneratuetan oinarrituta, jarduerari jarraipena egiteko, emaitzak aztertzeako eta ikastetxeko prozesuak etengabe hobetzeko.
- c) Institutuaren kudeaketa-sistema diseinatu, ezarri eta ebaluatzea.
- d) Institutuaren urteko Kudeaketa Planaren plangintza, gauzapena eta ebaluazioa koordinatzea.
- e) Institutuaren antolaketa- eta funtzionamendu-alderdi orokorrak kudeatzea, barne-koordinazioa. Hezkuntza Sailak emandako arauak eta jarraibideak aplikatzea eta horiek betetzen direla zaintzea.
- f) Institutuaren gastuen urteko aurrekontua kudeatzea, jarraipen ekonomiko-finantzarioa eginez, kudeaketa-txostenak prestatuz eta kontuak zuzendaritzaren eta organo eskudunen aurrean izapidetuz.
- g) Institutuaren egoitzetako eta prestakuntza- eta berrikuntza-jardueretarako espazioak, azpiegiturak eta baliabide materialak planifikatzea eta kudeatzea.
- h) Institutuaren Komunikazio beharrak antolatu eta bideratzea.
- i) Institutuaren prestakuntza eta aholkularitza kudeatzeko sistema diseinatu, kudeatu eta ebaluatzea, Hezkuntza Sailean prestakuntzaren esparruan eskumena duen zuzendaritzarekin koordinatuta.
- j) Hizkuntzen esparruan, kalitatea, efizientzia eta etengabeko hobekuntza sustatzea ikastetxeko jarduera guztietan, ebaluazio-ikuspegiak, aldaketaren kudeaketa eta ziurgabetasun-testuinguruak landuz.
- k) Hezkuntza saileko gainerako esparruekin lankidetzan aritzea.
- l) Zuzendaritzak Esleitutako gainerako eginkizunak betetzea.

VIII. KAPITULUA.– LAN-ARDATZAK ETA KUDEAKETA OPERATIBOA

Lan-ardatz guztien eta kudeaketa operatiboaren eginkizun komunak dira Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua osatzen duten lan-ardatzen eta administrazio unitatearen arteko koordinazioa, elkarlana eta osagarritasuna bermatzea, eta ildo horretatik, Hezkuntzaren esparruan eskumena duen sailburuordetzei laguntzea hizkuntzen esparruan sortzen diren beharrezane.

15. artikulua.- Hizkuntza prestakuntza eta aholkularitza ardatzaren eginkizunak

Hizkuntza prestakuntza eta aholkularitza ardatzak hizkuntza eta corpusgintzari lotutako eginkizun hauek izango ditu:

- a) Irakasleen eta irakasle ez diren langileen hizkuntza-gaitasuna hobetzea, euskararen ardaztutako kalitatezko irakaskuntzaren beharrei erantzuteko.
- b) Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua oinarri hartuta, ikasleen hizkuntza gaitasun-premiei erantzutea, bereziki, ebaluazioari dagokionean, baita beharrian bereziak dituzten ikasleei dagokionean ere.
- c) Euskarazko kalitatezko ikasmaterialak sortzen laguntzea.
- d) Euskal Hezkuntza Sistemarako berariazko hizkuntza-aholkularitza zerbitzua eskaintzea.
- e) Euskal Hezkuntza Sistemaren hizkuntza-ziurtapenaren alorreko beharrak aztertzea eta haiei buruzko proposamenak egitea eta ezartzea.
- f) Lan-eremu berean ari diren erakunde, aditu, elkarte eta abarrekin lankidetzak sustatzea eta jakintza-praktikak partekatzeko espazioak eratzea jardunbide egokien transferentziak sustatzeko.
- g) Hezkuntzaren esparruan eskumena duen sailburuordetzari laguntzea hezkuntza-sistemaren ebaluazioan, esparru horren eskumen-eremuan ezartzen diren prozeduren bidez.

16. artikulua.- Materialgintza eta dokumentazio ardatzaren eginkizunak

Materialgintza eta dokumentazio ardatzak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Ikastetxeek ikasmaterialei dagokionez dituzten beharrianak identifikatzea eta erantzun egokitua ematea.
- b) Euskarazko kalitatezko ikasmaterialak kalitatezkoak izan daitezen bermatzea.
- c) EIMA dirulaguntza-deialdiaren baitan sortutako ikasmaterialak hezkuntza-komunitatearen esku jarri eta jarraipena egitea.
- d) EIMA Katalogoa edo Dokumentazio Zentroa irakasleen erreferentziazko ikasmaterial-iturri eta aholkularitza zerbitzu bihurtzea.
- e) Lan-eremu berean ari diren erakunde, aditu, elkarte eta abarrekin lankidetzak sustatzea eta jakintza-praktikak partekatzeko espazioak eratzea jardunbide egokien transferentziak sustatzeko.

17. artikulua.- Euskara, eleaniztasuna eta kulturartekotasunaren ardatzaren eginkizunak

Euskara, eleaniztasuna eta kulturartekotasunaren ardatzak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Ikastetxeek hizkuntzen esparruan dituzten beharrianak identifikatu eta hizkuntza aholkularitza egokitua eskaintzea.

- b) Hizkuntza-proiektuak egiten laguntzea, ikastetxeek urratsak eman ditzaten euskarari eta euskal kulturari ardaztutako ingurune eleaniztun eta kulturartekoa eraikitzeko.
- c) Hizkuntzaren irakaskuntza, didaktika eta psikolinguistika esparruko bidelaguntza, materialgintza eta prestakuntza eskaintzea, beti ere, euskara ardatz izanik eta hizkuntzen tratamendu integrala eta integratua txertatuta.
- d) Hezkuntza esparrura egokitutako euskal soziolinguistikaren lanketa garatu eta hezkuntza komunitatera zabaltzea.
- e) Ikastetxeetan zein handik kanpo euskal kultura lantzeko proiektuak eta programak sustatzea, eta horretarako aholkularitza eskaintzea.
- f) Hezkuntza eleaniztun eta kulturartekoa garatzen lagunduko duten programak bultzatzea, ikasgeletan zein ikasgelaz kanpo, metodologia berritzaileak ezartzeko, hizkuntzak ikasteko eta hizkuntzan murgiltzeko prozesuak hobetzeko.
- g) Lan-eremu berean ari diren erakunde, aditu, elkarte eta abarrekin lankidetzak sustatzea eta jakintza-praktikak partekatzeko espazioak eratzea jardunbide egokien transferentziak sustatzeko.

18. artikulua.- Ikerketa ardatzaren eginkizunak

Ikerketa ardatzak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren misioari erantzuteko dituen ikerketa beharrak identifikatu eta garatzea, unibertsitate eta adituekin lankidetzan.
- b) Euskara eta euskal kultura ardatz duen hezkuntza eleaniztun eta kulturartekoa eraikitzeko beharrezko diren ezagutzak ikertu eta hezkuntza komunitateari zabaltzea.
- c) Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren bidez garatutako diskurtso, ezagutza eta praktikak sakondu zein plazaratzeko testuinguruak sortu eta baliabideak eraikitzea.
- d) Hezkuntza-komunitatea osatzen duten kolektibo guztiek euskal unibertso kulturala ezagutzeko, propiotzat hartzeko eta, nor bere abiapuntutik, eragile izateko gakoak ezagutzea, eta ezagutza horren arabera esku-hartzeak inplementatzea.
- e) Hezkuntza-komunitateko kideen jatorri-aniztasuna eta mundu mailako interkonexio digitala kontuan hartuta, euskara eta euskal kultura ardatz izango duen hezkuntza eleaniztuna lortzeko gakoak eskuratzea.
- f) Eguneroko eskola-jardunean, irakasleei ikasleen hizkuntza-identitatearen eta -gaitasunaren alorretan arrakastaz jarduteko gakoak eskuratzen laguntzea, izan didaktiko pedagogikoak, izan materialgintzaren alorrekoak.
- g) Lan-eremu berean ari diren erakunde, aditu, elkarte eta abarrekin lankidetzak sustatzea eta jakintza-praktikak partekatzeko espazioak eratzea jardunbide egokien transferentziak sustatzeko.

19. artikulua.- Kudeaketa operatiboaren unitatearen eginkizunak

Kudeaketa operatiboaren unitateak eginkizun hauek izango ditu, gutxienez:

- a) Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren barne- eta kanpo-komunikaziorako proposamenak egin eta kudeatzea.
- b) Lan-ardatzaren beharrian teknologikoak kudeatu eta aholkularitza eskaintzea: baliabide digitalak eta plataforma teknologikoak kudeatzea;

erabiltzaileei laguntza teknikoa ematea; berrikuntza teknologikoari lotutako aholkularitza ematea.

c) Administrazio arloan eta arlo juridikoan lan-ardatzek eta haien bidez sortutako proiektu edo programek izan ditzaketen beharrezko erantzutea: pertsonen kudeaketa; espazioen kudeaketa; araudiaren gaineko aholkularitza; espedienteen, kontratuen eta administrazio-prozeduren tramitazioan laguntza; dokumentazio ofizialen kudeaketa eta kontrola.

20. artikulua.– Ardatz buruak

1.– Ardatz bakoitzak arduradun bat izango du: ardatz burua.

2.– Institutuko ardatzen ardura duten pertsonak beren gain hartuko dute beren ardatzen funtzionamenduaren erantzukizuna, baita Urteko Kudeaketa Planean ezarritako helburuak lortzeko konpromisoa ere, beren esparruaren jardun-eremuari dagokionez.

3.– Ardatzeko buruaren lanpostua Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidego bateko karrerako funtzionario batek beteko du.

4.– Ardatz burua Institutuko zuzendaritzaren mende egongo da zuzenean.

5.– Ardatz buruak lankide izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoko irakasle kolaboratzaileak.

6.– Ardatz buruak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Bere ardatzeko jardura gidatu, koordinatu eta ebaluatzea.
- b) Urteko Kudeaketa Plana prestatu eta betearaztea.
- c) Langileen lana koordinatzea.
- d) Bilerak deitu eta zuzentzea.
- e) Prestakuntza eta aholkularitza beharrak bideratzea.
- f) Zuzendaritza-taldearekin, unibertsitateekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.
- g) Berrikuntza eta teknologia arloko zaintza egitea.
- h) Zuzendaritzak agintzen dizkion gainerako zereginak betetzea.
- i) Gainera, zuzendaritza-taldeko kidea izango da.

21. artikulua.– Kudeaketa operatiboaren unitate-burua

1.– Kudeaketa operatiboak arduradun bat izango du.

2.– Kudeaketa operatiboaren unitate-buruaren lanpostua Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidego bateko karrerako funtzionario batek beteko du.

3.– Unitate burua Institutuko zuzendaritzaren mende egongo da zuzenean.

4.– Kudeaketa operatiboaren unitate-buruak lankide izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoko irakasle kolaboratzaileak.

5.– Kudeaketa operatiboaren unitate-buruak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Bere unitateko jardura gidatu, koordinatu eta ebaluatzea.
- b) Urteko Kudeaketa Plana prestatu eta betearaztea.
- c) Langileen lana koordinatzea.
- d) Bilerak deitu eta zuzentzea.
- e) Prestakuntza eta aholkularitza beharrak bideratzea.
- f) Ardatzen beharrak identifikatu eta kudeatzea.
- g) Zuzendaritzak agintzen dizkion gainerako zereginak betetzea.
- h) Gainera, zuzendaritza-taldeko kidea izango da.

IX. KAPITULUA.– AHOLKU BATZORDEA

22. artikulua.– Aholku Batzordea

- 1.– Aholku Batzordeak izaera aholku-emailea izango du.
- 2.– Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren helburuari erantzuteko eta aholkuak emateko eginkizuna izango du.
- 3.– Aholku Batzordea honako kide hauek osatuko dute:
 - a) Institutuko zuzendaria, batzordeburu izango dena.
 - b) Institutuko zuzendariordea.
 - c) Euskal hezkuntza-sisteman, hizkuntzen irakaskuntzan, soziolinguistikan, euskal kulturean, eleaniztasunean, kulturartekotasunean edo hezkuntza-ikerketan esperientzia eta prestigio aitortua duten, gutxienez, sei kidek.
 - d) Batzordeko idazkaria; hitzarekin baina botorik gabe jardungo du, eta Institutuko zuzendariordea izango da.
- 4.– Batzordeko kideak Hezkuntza sailburuak izendatuko ditu, Institutuko zuzendaritzak proposatuta.
- 5.– Kideen agintaldia legealdika antolatuko da, eta berriz izendatu ahal izango dira.
- 6.– Aholku Batzordearen osaeran emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuko da.
- 7.– Aholku Batzordeak bere eginkizunak garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen lantalde edo azpibatzerde espezializatuak eratu ahal izango ditu.
- 8.– Gutxienez, urtean behin batuko da Aholku Batzordea.
- 9.– Aholku Batzordeko kideek ez dute inolako ordainsaririk jasoko kide izate hutsagatik; hala ere, indarrean dagoen araudiaren arabera dagozkien dieta eta joan-etorrien gastuen kalte-ordainak jaso ahal izango dituzte.

23. artikulua.– Aholku Batzordearen eginkizunak

- a) Kontseilu Errektoreari eta Zuzendaritza-taldeari aholkuak ematea.
- b) Institutuaren proiektuak eta jarduerak aztertu eta baloratzea.
- c) Hizkuntzen irakaskuntzaren eta kudeaketaren arloan lehentasunezko jardun-ildoak proposatzea.
- d) Hezkuntza sailburuak proposatutako bestelako eginkizunak.

X. KAPITULUA — AURREKONTUA ETA KONTRATAZIOA

24. artikulua — Aurrekontua eta ondarea

- 1.- Euskararen eta hizkuntzen ikaskuntzarako Institutua Hezkuntza Sailaren aurrekontuarekin finantzatuko da. Hezkuntza Saileko egitura organikoa eta funtzionala arautzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren arabera, Saileko zuzendariak dute kontratuak esleitzeko eskumena.
- 2.- Institutuaren kontratazio-jarduera sektore publikoko kontratuen arloan indarrean dagoen legediaren arabera arautuko da.
- 3.- Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak Euskal Administrazio Orokorren ondarea osatzen duten ondasunak izango ditu, hezkuntza-esparruan eskumena duen sailari atxikita badaude eta sail horrek Institutuaren esku jartzen baditu.

XI. KAPITULUA — PLANIFIKAZIOA

25. artikulua — Plan Estrategikoa

1.— Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak ezarrita dituen helburuak betetzeko, Plan Estrategikoak diseinatuko ditu. Plan horrek gutxienez, alderdi hauek barneratuko ditu:

- a) Eginkizunak betetzeko finkatzen diren helburuak.
- b) Planifikatutako helburuak lortzeko ekintzak.
- c) Helburuak betetzeko kronograma.
- d) Betetze-mailaren adierazleak.

2.— Plan Estrategikoaz gain, Urteko Kudeaketa Plana diseinatuko du, ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, plan estrategikoaren betearazpena garatzeko helburuarekin.

Urteko Kudeaketa Planak, gutxienez, honako alderdi hauek jasoko ditu:

- a) Planaren erreferentziako aldian garatzen diren helburuak.
- b) Planifikatutako helburuak lortzeko ekintzak.
- c) Kronograma eta ekintzen plangintza, horien aurrerapena gainbegiratzeko.
- e) Helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko funtsezko adierazleak.
- f) Gastuen Urteko Aurrekontua.
- g) Urteko Kudeaketa Planak atal espezifiko bat izango du zerbitzuaren ebaluazio kualitatiboari buruz, eta bertan zehaztuko dira Institutuaren jardunaren balorazioak jasotzeko estrategiak, bai eta emaitzen azterketatik abiatuta aurreikusitako hobekuntza-neurriak ere.

3.— Plan estrategikoa eta Urteko Kudeaketa Plana Zuzendariak egingo du eta Kontseilu Errektoreak onartuko ditu. Haren epealdia zein izango den Kontseilu Errektoreak erabakiko du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

1. Xedapen gehigarria — Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak bere gain hartuko ditu bere eskumen-eremuko eginkizun hauek: euskara zerbitzua eta haren eginkizunak, eleaniztasunari lotutako programa zein deialdiak, irakasleen hizkuntza-gaikuntzarako zentroak (IRALE), Euskal Girotze Barnetegiak, HEZILABeko hizkuntza-zerbitzuak, bai eta Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzatik zein Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritzatik edota Lanbide heziketatik erator daitezkeen hizkuntzarekin lotutako programak ere.

2. Xedapen gehigarria — Giza baliabideen eta baliabide materialen integrazioa.

- a) IRALE programari eta Euskal Girotze Barnetegiei lotutako giza baliabideak eta baliabide materialak Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuari atxikita geratzen dira.

b) HEZILABeko euskara, eleaniztasuna eta kulturartekotasuna esparruko giza-baliabideak eta baliabide materialak Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuari atxikita geratzen dira.

c) Euskara Zerbitzuari lotutako giza baliabideak eta baliabide materialak Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuari atxikita geratzen dira. Baita Ikaskuntza eta Berrikuntza zuzendaritzaren baitan kokatuta dauden EUSKARA ATALari lotutakoak ere.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

1. Xedapen iragankorra — Dekretu hau indarrean jarri arte Institutuan edo haren eskumen-eremuan egiten ari diren eginkizunak, programak, proiektuak eta jarduketak ordura arteko antolaketa- eta funtzionamendu-baldintzetan gauzatzen jarraituko dira, harik eta dekretu honetan aurreikusitako egitura eta baliabideak erabat ezarri arte.

Epe horretan, Hezkuntza Sailak beharrezko neurriak hartuko ditu eginkizunen, langileen, baliabide materialen eta espedienteen trantsizio ordenatua bermatzeko, zerbitzuaren jarraitutasuna eta eraginkortasuna zainduz.

2. Xedapen iragankorra — Dekretu hau indarrean jartzean, Euskal Girotze Barnetegien sorrera eta jardute-modua arautzen dituen maiatzaren 29ko 147/1990 Dekretuaren garapenean sortutako barnetegietan eta IRALE programa arautzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduaren II. atalburuan aurreikusitako irakastegietan dauden gobernu-, koordinazio- eta kudeaketa-organoek beren eginkizunak betetzen jarraituko dute behin-behinean.

Behin-behineko araubide horrek iraungo du Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko zuzendariak Euskal Girotze Barnetegien eta IRALE irakastegien gobernu-, koordinazio- eta funtzionamendu-egitura berria ezarri arte.

Egitura berri hori abian jartzen den egunean bertan azkenduko dira aurreko apartatuan aipatutako organoak, eta dekretu honetan ezarritako antolaketa-araubidea aplikatuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

1. Xedapen indargabetzailea — Indargabetuta geratzen dira dekretu honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

2. Xedapen indargabetzailea — Bereziki, honako hauek geratzen dira indargabetuta:

a) Euskal Giroitze Barnetegien sorrera eta jardute-modua arautzen dituen maiatzaren 29ko 147/1990 Dekretuaren xedapeneko 6. atalak, egitura eta antolamendu gaiei dagokienez.

b) IRALE programa arautzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduaren II. atalburua, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitako unetik aurrera.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau EHAA-n argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.